
Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

Testua: Unai Brea

Argazkiak: Iñigo Azkona

Portugalete

Erdi Aroko harri bila Ezkerraldean



Ibaizabalen ezker ibarraz, hau da, Ezkerraldeaz, gauza asko entzungo zenuten, onak batzuk eta txarrak asko, baina gutxitan ederra denik. Eta hala izanda, nekez sortuko zitzaizuen inoiz eskualde hori bisitatzeko gogorik. Aurreiritziek halako kalteak dakartzate. Eskuin Ibarrean denak jauregi dotoreetan bizi ez diren bezala, Ezkerraldean bada zementuz eta fabrikaz besterik. Esandakoa frogatzeko, Portugaletera egingo dugu aste honetako ihesaldia, hango aldapa gogorretan zain ditugun txoko ederren bila.

Ondoren proposatuko dizuegun ibilaldia egiteko ez dituzue hankak gehiegi nekatu behar, Portugalete ez baita oso handia. Bizkaiko herri-rik txikienetakoa da, izan ere: 3,2 kilometro koadro besterik ez. Baina hedaduraz murrizta den neurri berean biztanleetan oparoa da Portugalete. 50.000 lagun inguru bizi dira hirian, kilometro koadroko 16.000 inguru. Ezbairik gabe, Bizkaiko udalerrietan hark du dentsitate handiena. Europa osoan ere ez omen du parerik Portugaleteko giza-kontzentrazio ikaragarriak, hala zioten behintzat hiriak gaur baino 10.000 biztanle gehiago zeuzkan garaletan. Dena dela, ez dugu hemen esango harro egoteko moduko markak direnik horiek.

Behin demografiari buruzko aurre-solasa burututa, has gaitezen behingoz txangoan. Eta nola ez, hiriko lekurik ezagunenetik hasiko gara, Bizkaiko Zubitik. Gizateriaren Ondare izendatutako Euskal Herriko eraikin bakarra izanik, bekatua litzateke gure bisitaldiaren zati bat, bederen, ez eskaintzea. Hala ere, gauza asko idatzi da honez gero Bizkaiko Zubiaz, eta ez dugu hemen denbora eta leku gehiegi galduko bibliografia hori gizentzen. Gure arreta, aurrerantzean, parez pare dugun hiriari eskainiko diogu.

Jo dezagun, bada, Zubiz 7heldu garela Portugaletera. Aurrera egi-



Kilometro koadroko 16.000 lagun bizi dira Portugaleten.

nez, Maria Diaz de Haro kalera iritsiko gara berehala, eta handik pixka bat ezkerretara joanez, Casilda Iturrizarrera. Hau erraz ezagutuko duzue: goranzko aldapa da, eta ez malda txikikoa. Hau idazteko unean lanak egiten dabilta bertan, besteak beste eskailera mekanikoak jartzeko, oinezkoen lagungarri. Batek baino gehiagok eskertuko du.

Eskailera edo gure ahalegin hutsez, norberak aukeratu dezala hori, Casilda Iturrizarretik igoz laster helduko gara Santa Klara komentura, kalearen eskumako

aldean. XVII. mendean eraiki zen, eta XIX.ean berriztatu, gaur duen itxura ederra emanez. Duela hogeita urte Udaletxeak eskuratu zuen, eta Kultur Egoitza bihurtu. Han dago, besteak beste, turismo bulegoa, nahiz eta luze gabe beste egoitza batera eramango duten.

Kalearen ezkerreko aldean, berriz, Alde Zaharra dugu. Hura mugatzen zuen harresi zaharra ere ikusiko genuke, XVIII. mendean, hiria handitu beharrez, eraitsi ez balute. Harresia zegoen lekuan dago orain Casilda Iturrizar kalea. Hamaika izenen kalea, esan diezaiozun. Antzina, Kale Barria edo Barrera kalea esaten zitzaion. Geroago hartu zuen gaur egungo izen ofiziala, baina bertakoek nahiago dute "egurraren kalea" esatea. Izenak izen, Santa Klara komentua utzi eta Alde Zaharrean murgilduko gara Atarazanas kaletik. Hala helduko gara Rantxeria plaza txikira.

Erdi Aroko Portugalete

Alde Zaharraren goiko aldean gaude orain. Erdi Aroko beste hiri

Zelan heldu

Hainbat modutara joan daiteke Portugaletara. Bilbotik oso hurbil dagoenez, erraz ailega daiteke bertara errepidez, trenaz edo, aurtengo urtariletik, metroz. Errepideari dagokionez, hobe autobusa norberaren autoa baino. Portugaleteko trafikoa ez da oso gomendagarria bihotzeko gaixotasunak dituztenentzat.

Getxotik joatea da beste aukera. Hala eginez gero, Bizkaiko Zubia edo ontzi-txoa erabil daitezke —elkarrengandik oso hurbil daude—. Interesgarria izaten da, joan-etorriko bidaia eginez gero, ontzi batean joatea eta bestean etortzea. Itzadarraren ikuspegia zeharo desberdina da batean ala bestean, baina bietan polita. Urteko garai jakinetan, gainera, Euskal Herria ontziak Portugalete eta Santurtzi batzen ditu Getxorekin.



Elizaz gain Erdi Aroko hirian badira eraikin ikusgarriak, Erdi kaleko 17.eneko Errenazimenduko jauregia, berbarako.

askotan bezala, hiru kale nagusik osatzen zuten Portugalete. Kasu honetan goitik behera doaz kaleak, sorreratik hiriaren hauspoa izan den Ibaizabalen bila. Gauden lekutik begiratuta, eta ezkerretik esku-mara, Koskojales, Victor Chavarri (edo Barrenkale) eta Santa Maria kalea dira hiri zaharrenen bizkarre-

zurak, hainbat kantoi estuk zehar-katuta.

Eguneko edozein ordutan paseatzeko leku polita da Portugaleteko Alde Zaharra. Asteburu gauetan berriz, gazte eta ez hain gazte askoren bilgune bihurtzen da. Bertako giroak, inguruko beste hiri batzutan ez bezala, nola edo hala egin dio

aurre Bilboren eta merkataritzagune handien lehiari. Taberna asko egotea, bestalde, ez da kontu berria. XX. mende hasieran ere hala omen zen. Garai hartan, txakolina pitxer txikian (*jarrillas*, gaztelaniaz) zerbitzatzeko ohitura zegoen; hortik *jarrillero* goitizena portugaletarentzat.

Jaiak eta jaialdiak

Portugaleteko jai nagusiak San Rokeren omenezkoak dira, abuztuaren 14tik 17ra. Egun –eta gau– horietan, jendez lepo egoten da herria; beste herrietako lagun asko gerturatzen baita sanrokeetara, inguru osoan daukaten entzuteari esker. Izan ere, orain dela hainbat mende hasi ziren Portugaleten San Roke eguna ospatzen, eta azkenik, duela berrehun urte baino gehiago, santua herriko patroiz izendatzea erabaki zuten. Hala, eskualde osoan tradizio luzeena duten jaiak dira, udal turismo bulegoko web-guneak dioenez.

Sanrokeen ospea ez badauka ere, Giako Andra Mariren jaiak da, beharbada, portugaletarren kutunena. Uztailaren 1ean ospatzen da, eta antza denez, itsasoko langileen jaiak zen hasieran. Egun handi horretako ekitaldiak Alde Zaharrean egiten dira, Koskojales kalean batik bat.

Folklore, txakurrak eta beste

Jaiak ez ezik, jaialdiak ere baditu Portugaletek, eta ez garrantzi gutxikoak. Adibidez Elai-Alai dantza taldeak antolatzen duen Nazioarteko Folklore Jaialdi garrantzitsua. Dagoeneko hiru hamarkada pasako ibilbidea du, eta ezinbesteko hitzordua da Euskal Herri osoko dantza maitale askorentzat. Uztaila amaieran egin ohi da.

Aipatzekoa dugu, halaber, Nazioarteko Txakur Lehiaketa, uztailean hau ere. Artzain-txakurrez edo antzeko zerbaitez pentsatzen ari bazarete, ahaztu, Portugaletera joaten direnak oso bestelakoak dira eta. Hauek, ardiak bildu ordez, ahalik eta dotoreen desfilatu behar dute, txakur munduko *miss* eta *mister*-ak bailiran, epaimahaikoen onespina lortu gura badute. Edertasuna eta obediencia, irabazteko errezeta.

Azkenik, kirol arloa ekarri behar dugu gogora. Portugaleten egiten da, esaterako, Euskal Herriko bigarren estropadarik garrantzitsuenak: El Corte Inglés bandera. Kasu honetan, eta lehia itsasadarrean gertatzen denez, Getxok ere badu zeresanik, baina tira... Uretatik irten gabe, azpimarratzekoa da Portugaleten nazioarteko waterpoloaren hiriburuetakoa bat dela. Urtero, bertan jokatzen dira Munduko Ligaren hainbat partidu.

Eraikin ikusgarriak

Erdi Aroko hirian badira eraikin aipagarriak. Erdiko kaleko 22. zenbakikoak, esaterako, atari eta armarriri barrokoak gorde ditu. Kale berean, baina 17.ean, atariak erdi-puntuko arkua dauka sarrera gainean. Errenazimenduko jauregi handi baten azken hondarra da.

Berriz Alde Zaharreko goiko aldera itzulita, ezkerretara joko dugu, Elizaren kantoitik, Andra Mari basilikara. Portugaleteko eraikin ikusgarrienetako bat da, eta XV. mende amaieran hasi ziren eraikitzen, aurrez eliza apalago bat zegoen lekuan. Gaur egun, basilikak museo bat dauka bere baitan. Bertan, mezatan erabiltzeko zilarrezko objektuak daude ikusgai; gehienak indiano eta marinelek ekarritako opariak dira, Peru eta Mexikoko zilarginek XVII. mendean egindakoak. Basilikako lorategian, berriz, Lope Garcia de Salazar, Bizkaiko lehenengo historiagilearen eskultura

XX. mende hasieran,
txakolina pitxer txikietan
(*jarrillas* gaztelaniaz)
edateko ohitura zegoen;
hortik *jarrillero* goitizena



Astearte, ostegun eta larunbat goizez egiten da azoka.

dago. Garcia de Salazar Muskizen jaiotakoa zen, baina Portugaletere-kiko harreman estua izan zuen bere bizitza osoan zehar. Bere iloba batek, Otxoa de Salazarrek, dorre bat eraikitzeko agindua eman zuen XV. mende amaieran. Gaur egun Salazar dorrea izena dauka, eta basilikatik oso gertu topatuko duzue.

Berriz itsasadarrerantz

Santa Mariatik jaitsiz, Salcedo kale-
ra helduko gara. Antzinagoko den-
boretan, bertan zeuden ontziolak,
baina ez jakin zehazki non. Hala
ere, lehengo usaina dario oraindik
kaleari, bere arkupe txiki eta guzti.
Bertatik bertara, itsasadarrarentz
joanda, Solar plaza dago. Han ikusi-
ko dituzue Víctor Chavarriren ome-
nezko eskultura eta musika-kios-
koa. Astearte, ostegun edo larunbat
goizez joanez gero, gainera, nekazal
azoka ikusiko duzue. Garai bateko
indarrari eusten ez badio ere, orain-

dik inguruko baserriar eta erosle
askoren topagunea da.

Gauden lekuan, nahi izanez
gero, Ibaizabalen beste aldera joa-
teko ontzitzoa har genezake. Bes-
tela, Bizkaiko Zubirantz segi deza-
kegu, Txurruka kaian barrena,
gure ibilaldia hasitako toki berean

amaitzera. Hirugarren aukera ere
badago: Zubi ondotik pasa eta segi
aurrera, Santurtziko mugaraino ia.
Han mareometroa dago, mareak
neurtzeko –izenak ez dio gezu-
rrik– 1883an jarritako gailua. Por-
tugaletre, betidanik, marearen ara-
bera bizi izan da eta. ■

Jatetxe batzuk:

- ✓ El Abra
María Díaz de Haro, 6
94-495 68 08
- ✓ Auntz
María Díaz de Haro, 2
94-401 48 00
- ✓ Baserri-2
Antonio Zununegui, 13
94-483 69 59
- ✓ Los Arcos
Gipuzkoa, 23
94-483 76 48

Lo egiteko:

- ✓ Gran Hotel
Puente Colgante
María Díaz de Haro, 2
94-401 48 00
- ✓ Bellmar ostatua
Ortuño de Alango, 31
94-483 45 00
- ✓ Santa Maria ostatua
Salcedo, 1
94-472 24 89

20, 30, 35, 40... eta
50 urtera arteko hipotekak.
Tasazio-balioaren
%100eraino
eta abalik gabe.

zeure erara
bbk
hipotekak

etxetik botako zaituzte